AZAROAK 20
9.15-13.30

# BERDINTASUNAREN ARLOKO AURRERAPENAK ENPRESETAN. ARAUDI BERRIA ETA ESPERIENTZIAK

20 DE NOVIEMBRE
9.15-13.30

# AVANCES EN MATERIA DE IGUALDAD EN LAS EMPRESAS. NUEVA NORMATIVA Y EXPERIENCIAS

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDE
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

BAI SAREA

Berdintasunean
Aukerak Indartzen

# Sarean soldata berdintasunerantz aurrera eginez




## Soldata Arrakala Taldea

**Nerea Díez, Compañía del Tranvía de San Sebastián- DBUS**
**Nuria Rivada, Satse**

# BAI SAREA,

## ERAKUNDEAK SAREAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO AUKERAK INDARTZEN

64






## ERAKUNDE KOPURUA

| | |
|---|---|
| ARABA | 9 |
| GIPUZKOA | 23 |
| BIZKAIA | 32 |

## FORMA JURIDIKOA

- 23 IRABAZI-ASMORIK GABEKO ERAKUNDEA
- 7 KOOPERATIBA SOZIETATEA
- 7 ERAKUNDE PUBLIKOA
- 27 GAINERAKO MERKATARITZA SOZIETATEAK

# 64 ERAKUNDE

## TAMAÑO

- 10 langile edo gutxiago: 8
- 11-50 langile: 20
- 51-100 langile: 10
- 101-150 langile: 7
- 151-250 langile: 7
- 250 langile edo gehiago: 12

## JARDUERA

| | |
|---|---|
| 1 | FINANTZA ERAKUNDEA |
| 1 | KOMUNIKABIDEA |
| 1 | TOKIKO SUSTAPENA |
| 1 | KULTURA ZERBITZUAK |
| 1 | UNIBERTSITATEA |
| 1 | SINDIKATUA |
| 1 | JASOKUNTZA |
| 1 | AZPIEGITURAK |
| 2 | ERAIKUNTZA |
| 3 | ENERGIA ETA INGURUMENA |
| 5 | INGENIARITZA ETA TEKNOLOGIA |
| 8 | GARRAIOA |
| 14 | AHOLKULARITZA ETA FORMAKUNTZA |
| 24 | GIZARTE ESKU-HARTZEA |

| | | |
|---|---|---|
| FEMINIZATUAK | ♀♀♂ | 59% |
| PAREKOAK | ♀♂ | 13% |
| MASKULINIZATUAK | ♂♂♀ | 28% |

Un **ESPACIO PARA CRECER Y AVANZAR** en igualdad en red, acompañadas y respetando el carácter de cada entidad. Un entorno de conocimiento y motivación. Un lugar de **REORIENTACIÓN, DE REAJUSTE Y DE IMPULSO.**

Batetik, **INDARRA ETA BABESA**. Sentitzea pertsona eta erakunde ezberdinak gaudela helburu berarekin lanean. Bestetik, **BALIABIDE ETA EZAGUTZA ZEHATZAK** ere. Eta gauza tangible eta konkretuak ikustea pozgarria da.

Una **PERSPECTIVA MÁS AMPLIA** del avance hacia la igualdad.

Poder **CO-CONSTRUIR.**

BAI SAREAk **INDARTSUAGO EGITEN GAITU**. Bakoitzaren ezaugarriak errespetatuz, bide berean goazenaren ziurtasuna eta babesa ematen digu.

BAI SAREA **ESPERIENTZIA BAT DA**, esperientzia bat, erreala delako, bizia delako eta bertako kidea sentitzen naizelako, eta, Berdintasunaren Kudeaketa ari garen enpresentzat, informazioa, gogoeta eta erreferentziazko toki bat eskaintzen digu.

# SOLDATA ARRAKALA – SOLDATA BERDINTASUNA



## 2019-2020 EKINTZA PLANA

## 3. ERAKUNDEEN BERDINTASUN ALORREKO ESTRATEGIA SENDOTZEA

Berdintasunezko antolakuntza kulturarako bidean norberaren eta kolektiboaren aurreramendua bermatzea, BAI SAREA osatzen dugun erakundeok berdintasuna finkatzeko xedean bideratzen dugun kudeaketaren eragina hobetuz.

**3.1. NEURRIA. BAI SAREAren soldata arrakalaren azterketa**

- Aztertzeko metodologiaren eta urratsen zehaztapena.
- Erakunde bakoitzaren soldata arrakalaren azterketa koordinatua.
- Sarearen emaitzen finkapena, jarduera eta tamainaren arabera.

# 2019: AZTERTZEKO JARRAIBIDEAK

BAI SAREA

Berdintasunean
Aukerak Indartzen

## SOLDATA ARRAKALARI BURUZKO AZTERKETA

**JARRAIBIDEAK**

** 2019ko irailaren 24an Mertxe Larrañagarekin egindako lan saioaren ondorioetan oinarrituak

# SOLDATA ARRAKALA TALDEA

## ERAKUNDEAK

- MURGIBE
- VIRTUALWARE
- SATSE
- EDE FUNDAZIOA
- COMPAÑÍA TRANVÍA DE SAN SEBASTIÁN- DBUS
- EMAKUNDE





# SORTZE PROZESUA

**SAREARI INKESTA**
zalantzak biltzeko

**MERTXE LARRAÑAGAREKIN SAIOA (EHU)**
Ikuspegi, oinarri eta analisirako irizpideen inguruko formakuntza

**PAUTAK SORTZEA**
bildutako informazio guztiarekin

**JARRAIBIDEAK APLIKATU**
taldea osatzen duten entitateetan

**JARRAIBIDEEN KONTRASTE ETA EGOKITZAPENA**
Jarraibideak aplikatu ondoren



# SOLDATA ARRAKALA

## ZER DA?

→ Soldata arrakala ≠ Soldata diskriminazioa

→ Besteak beste, hauexek daude soldata arrakalaren **oinarrian**:

- **Segregazioa**
- **Prekarietatea**

## IKUSPEGIA: EKONOMIA FEMINISTA

**Ekoizpen eta ugalketa lanek euren artean duten harremanean** jartzen du fokua, eta azpimarratu egiten du balioesten ez diren lanen garrantzia, hein handi batean emakumeek egiten dituzten lan horien garrantzia.

### AGERIKOA

- Merkataritza ekoizpena
- Lan merkatua



### IKUSEZINA

- **Merkataritzakoa ez den ekoizpena**
- **Etxeko lanak**
- **Zaintzak**

# AINTZAT HARTU BEHARREKO IRIZPIDEAK

1

## DATU ABSOLUTUAK, EZ BAKARRIK %AK

Hurrengoak aztertzea ahalbidetzen du:
- Soldatak duinak diren (gerta liteke arrakalak txikiak izatea eta soldatak, aldi berean, baxuak).
- Emakume eta gizonen gehieneko eta gutxieneko balioak.
- Etab.

2

## LANALDI MURRIZTUA IZATEAGATIK SOLDATA BALIOKIDETASUNIK EZ EGITEA

Lan merkatutik kanpora dauden zaintza eta etxeko lanak ageriko egiteko.

Proposamena: batez besteko soldatekin batera batzuen eta besteen lanaldiaren batez besteko orduak eta dagokion arrakala aurkeztea.



3

## SOLDATA (W)

Hauexek sartuko dira soldata gordinean:
- **OSAGARRI GUZTIAK**
- **IRABAZI SOZIALAK**
- **APARTEKO ORDUAK**

4

## EGUN GUTXIAGO LAN EGIN DUTENAK AINTZAT HARTU

Lehenengo azterketa:
- erakundeko pertsona guztiak aintzat hartuko dira,
- arrazoi ezberdinengatik urteko lanaldi osoan lan egin ez badute ere,
- urteko baliokidetasunik egin gabe.

5

## INTERSEKZIONALITATEA

Komeni da azterketan aldagai hauetako batzuk jasotzea:
**adina, aniztasun funtzionala, ikasketa maila, jatorria, etab.**

6

## SEXU BARRUKO ANALISIA

- Emakumeen artean eta gizonen artean ematen diren ezberdintasunak aztertuko dira.
- Emakume guztiek eta gizon guztiek partekatzen dituzten soldata ezaugarriak (esate baterako, lanaren balioa).
- **Soilik emakumez edo soilik gizonez osatutako enpresen kasuan,** horixe izango da aztertzeko aukera.

7

## IRITZIA

Langileek **soldaten, ordaintzeko politikaren eta arrakalan eragiten duten beste faktore** batzuen aurrean dauzkaten pertzepzioei buruzko informazio bilketarekin osatu azterketa.

# DENBORA IRIZPIDEA

## ORDUKO ARRAKALA

Analisi honek **ez du ageriko egiten** emakumeen eta gizonen ezberdintasunaren errealitatea **lanaldi eta murrizketa motei dagokienez.**

## HILEKO ARRAKALA

Analisi honek **ez ditu** egoki **jasotzen** urteko **osagarriak eta irabazi sozialak.**

## URTEKO ARRAKALA

**Autonomia ekonomikoaren** funtsezko adierazlea da.

## PROPOSAMENA

**URTEKO SOLDATA GORDINAREN ALDAGAIA ERABILTZEA**

**+**

**EGUNEAN EDO URTEAN LAN EGINDAKO ORDUAK**

Horrenbestez ageriko egingo dira lanaldi partzialen eta lanaldi murriztuen eragin ezberdina, merkataritzakoa ez den ekoizpena, zaintza eta etxeko lanak, eta osagarriak eta urteko irabazi sozialak.

*ORDUKO ARRAKALA < HILEKO ARRAKALA < URTEKO ARRAKALA*

# OINARRIZKO AZTERKETA

Proposamen hau BAI SAREA osatzen duten erakunde guztientzat soldata arrakala aztertzeko abiapuntu gisa planteatzen da.

Gero, erakunde bakoitzak, lehen argazki hori findu ahal izango du bere errealitatea kontuan harturik.



# www.baisarea.eus

